

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urtarrilaren 22ko 36/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 184 eredu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena, sozietateen gaineko zergarena eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena. Errentak eratzikitzeko araubidean dauden erakundeak. Urteko informazio aitortpena, bai eta ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarrien diseinu fisiko eta logikoak ere**

Otsailaren 8ko 59/2006 Foru Aginduaren bidez, errentak eratzikitzeko araubideko entitateek aurkeztu beharreko urteko informazio aitortpena, 184 eredu, onetsi zen. Eredu hori aldatu egin da geroago, hainbat foru aginduren bidez, arau aldaketetara egokitzeko.

Foru agindu honen xedea da 184 eredu berria (errentak eratzikitzeko araubideko entitateek aurkeztu beharreko urteko informazio aitortpena) onestea, gainerako zerga administrazioekin informazioa behar bezala trukatzeko beharrezkoak diren arau eguneratzeak eta egokitzapen teknikoak egiteko, eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko.

Horrela, foru agindu honek erabat integratuta arautzen du orain arteko indarreko eta 184. ereduaren informazio aitortpenari aplikatu beharreko araudia.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 56. artikulua ezartzen duenez, errentak eratzikitzeko araubideko erakundeek urteko informazio aitortpena aurkeztu behar dute beren bazkideei, oinordekoei, erkideei edo partaideei (Espainiako lurraldean bizi edo ez) eratziki beharreko errentei buruz, arau bidez ezartzen den edukiarekin.

Abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Errentaren gaineko Zergaren Araubidearen 124. artikuluan (errentak eratzikitzeko araubideko entitateen informazio betebeharre buruzkoa), aipatutako urteko aitortpenaren edukia zehazten da.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

#### **Lehenengo artikulua. 184 eredu onestea**

Onesten da 184 eredu, "Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Sozietateen gaineko zerga. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Errentak eratzikitzeko araubideko erakundeak. Urteko informazio aitortpena", zeina foru agindu honen eranskinean jasotzen baita. Eredu horrek dokumentu hauek dauzka:

- a) Laburpen orria.
- b) Erakundearen errenta aitortpenaren orriak.
- c) Bazkideen, oinordekoen, erkideen edo partaideen zerrendaren orria.

#### **Bigarren artikulua. Onestea 184. ereduan eman beharreko informazioa duten fitxategiek bete beharko dituzten diseinu fisiko eta logikoak**

Onesten dira foru agindu honen II. eranskinean agertzen diren diseinu fisiko eta logikoak. Diseinu horietara egokitu beharko dira 184 ereduan eman beharreko informazioa duten fitxategiak, baldin eta behar bezala baliozkotutako fitxategi baten bidez aurkezten bada.

**Hirugarren artikulua. 184 eredua aurkezteko erak**

184. ereduko aitortpenak bide hauetakoren bat erabiliz aurkeztu beharko dira:

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak emandako laguntza programen bidez, foru agindu honen zazpigarren artikuluan ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera.

Fitxategi bat lortzeko aukera ematen duten beste garapen informatiko batzuen bidez. Aitortpena agindu honen zazpigarren artikuluan ezarritako baldintza eta prozedurekin bat etorritz aurkeztu beharko da.

Aurkezten diren fitxategiek foru agindu honen II. eranskinean ezarritako ezaugarriak bete beharko dituzte.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduaren 2. artikuluan ezarritakoa aplikagarri ez zaien errentak eratzikitzeko erakundeek auzerantz izango dute 184 eredua telematikoki aurkeztea (603/2020 Foru Agindua, azaroaren 20koa, pertsona eta erakunde jakin batzuentzat zerga ereduak eta eskabideak Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak ezartzen dituen).

**Laugarren artikulua. 184 eredua aurkeztu behar dutenak**

Bat. 184 ereduari dagokion urteko informazio aitortpena aurkeztu beharko dute zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten errentak eratzikitzeko araubideko entitateek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 56. artikuluan arabera.

Hori gorabehera, jarduera ekonomikorik egiten ez duten eta urtean 3.000 eurotik beherako errentak dituzten errentak eratzikitzeko araubideko entitateak ez dira behartuta egongo urteko aitortpen hori aurkeztera.

Bi. Espainian eraturako errentak eratzikitzeko araubideko entitateen kasuan, informazioa emateko betebeharra errentak eratzikitzeko araubideko entitatearen ordezkariak bete beharko du, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 45. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Atzerrian eraturako errentak eratzikitzeko araubideko entitateen kasuan, betebeharrak hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaduna den erakundeko kideren batek edo sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboa den kideren batek egin beharko du.

**Bosgarren artikulua. Xedea eta informazioaren edukia**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araubidearen 124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, errentak eratzikitzeko araubideko entitateen urteko informazio aitortpen honetan, identifikazio datuez eta, hala badagokio, ordezkariarenez gain, honako informazio hau jaso beharko da, foru agindu honetan onesten den 184 ereduaren arabera:

a) Bazkide, oinorde, erkide edo partaideen (Espainiako lurraldeko egoiliar izan zein ez) identifikazioa, zerga egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia; zergaldian erakundearen osakeran izan diren aldaketen berri ere eman behar da.

Baldin eta erakundeko kideren bat ez bada Espainiako lurraldeko egoiliarra, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko foru arauaren hamargarren artikuluan ezarritakoaren arabera haren zerga ordezkariaren duenaren identifikazioa.

Atzerrian eraturako errentak eratzikitzeko araubideko entitateen kasuan, artikuluko honetan adierazitako moduan identifikatu beharko dira zerga honen zergadunak diren entitateko kideak edo sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboak direnak, bai eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak diren entitateko kideak ere, entitateak lortutako eta zerga horri lotuta dauden errentei dagokienez.

b) Erakundeak lortutako errenta guztien zenbatekoa eta kide bakoitzari eratziki dakiokoen errentarena; datu hauek zehaztu behar dira, kasuan kasukoa:

1. Errenta iturri bakoitzaren sarrera osoak eta gastu kengarriak.

2. Atzerriko errenten zenbatekoa; herrialdea zehaztu behar da eta etekin osoak eta gastuak adierazi.

3. Errentak eratzikitzeko araubideko erakunde bateko kideak sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun badira eta hark talde inbertsioko erakunde baten akzioak edo partaidetzak eskuratzen baditu, talde inbertsioko erakundeak identifikatu beharko du; akzio edo partaidetzen eskuraketa edo harpidetza eguna eta eskuraketa edo harpidetza balioa zehaztu beharko ditu, eta kapital propioaren lagapenaren pertsona edo erakunde hartzailea (egoiliarra zein ez-egoiliarra) identifikatu beharko du.

c) Kenkarien oinarriak.

d) Erakundeak jasandako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa eta kide bakoitzari eratziki beharrekoena.

e) Negozio zifraren zenbateko garbia, edo eragiketa bolumenaren zenbatekoa.

#### **Seigarren artikulua. 184 eredua aurkezteko epea**

Informazio aitortpena, 184. eredua, urte bakoitzeko otsailean aurkeztu beharko da, erakundeak lortutako errentei eta aurreko urte naturalean kide bakoitzari eratziki dakizkiokeen errentei dagokienez.

#### **Zazpigarren artikulua. 184 eredua aurkezteko prozedura**

Aitortpenak eta agiriak aurkezteko, jarraian adierazten diren prozedura arauak bete beharko dira:

1º. Telematikoki egin beharreko aitortpenak bi bide hauetatik edozein erabiliz egin beharko dira:

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak emandako laguntza programen bidez. Programa horiek Arabako Foru Aldundiaren web orri ofizialetik ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) deskargatu ahal izango dira.

Bidali aurretik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak horretarako ezarritako programarekin baliozkotutako fitxategi bat lortzea ahalbidetzen duten beste garapen informatiko batzuen bidez.

Baliozkotze programa hori [www.araba.eus](http://www.araba.eus) helbide elektronikoaren bidez deskargatu ahal izango da, eta aukera emango du egiaztatzeko sortutako ereduak araudian ezarritako formatua, ezaugarriak eta zehaztapenak dituela.

2º. Aitortpenak egin ondoren, zergapekoak edo, hala badagokio, haren ordezkari boluntarioak aitortpena bidaliko du, Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikora konektatuz, erabiltzen ari den laguntza programaren bidez edo [www.araba.eus](http://www.araba.eus) orriaren bidez, eta egoitza horretan horretarako ezarritako identifikazio sistemetako edozein erabiliz.

Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zuzenean sartzea erabakitzen bada, "Banakako aitortpenak aurkeztea" izapidea hautatu beharko du. Zerbitzu horren bidez, baliozkotutako fitxategia bidali ahal dio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari.

Bidalketa onartzen bada, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hartu-agiri bat sortuko du, erregistro zenbakia eta aurkezpen data eta ordua jasoko dituena. Zergapekoak edo, hala badagokio, haren ordezkari boluntarioak, hartu-agiri hori inprimatu ahal izango du, telematikoki bidalitako fitxategia bidali eta jaso izanaren egiaztatgiri gisa.

Bidalketa onartzen ez bada, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak zergapekoari edo, hala badagokio, haren borondatezko ordezkariari, atzera botatzeko arrazoien berri emango dio. Horretarako, dokumentu bat sortuko du, erregistro zenbakia eta bidalketaren data eta ordua jasoko dituena. Zergapekoak edo, hala badagokio, haren ordezkari boluntarioak, dokumentu hori inprimatu ahal izango du.

Atzera botatako fitxategia berriro ere telematikoki bidali ahal izango da, anomaliak zuzendu ondoren, eta zergapekoak edo, hala badagokio, haren ordezkari boluntarioak, telematikoki bidalitako fitxategia jaso izanaren agiria inprimatu ahal izango du, lehen adierazitako moduan.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Foru agindu hau indarrean jartzean, indargabetuta geratuko da otsailaren 8ko 59/2006 Foru Agindua, errentak eratzkitzeko araubideko entitateek aurkeztu beharreko urteko informazio aitorpena, 184 eredia, onetsi zuena.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta lehen aldiz aplikatu beharko da 2020. urtean lortutako eta urte horretan eratziki daitezkeen errentei dagokienez.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 22a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*  
**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**

## I. ERANSKINA

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (Establezimendu iraunkorrak)</b></p> <p>Errenta eratzikipenaren araubidean dauden erakundeak</p>	<b>184</b>
	<p><b>URTEKO INFORMAZIO AITORPENA</b></p>	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

<b>1</b>	<b>IDENTIFIKAZIOA</b>	<b>2</b>	<b>SORTZAPENA</b>
Identifikazio etiketa ipintzeko gunea		Ekitaldia .....	<input type="text"/>
		Aitorpenaren identifikazio zenbakia....	<b>184</b>

<b>3</b>	<b>ORDEZKARIA</b>	
IFZ	Abizenak eta izena	

<b>4</b>	<b>HARREMANETARAKO PERTSONA</b>		
Abizenak eta izena	Telefonoa	Helbide elektronikoa:	

<b>5</b>	<b>AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA</b>	
<p>Aitorpen hau aurkeztearen helburua lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar ziren baina bertan erabat huts egin ziren hartukizunak sartzea bada, "C" batez markatu behar da "Aitorpen osagarria" laukia.</p> <p>Aitorpen hau aurkeztearen helburua lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen bat, zeinean datu okerrak jarri baitziren, ezeztatu eta erabat ordezte baldin bada, ordezeko aitorpena dela adieraziko da "Ordezko aitorpena" laukia "S" batez markatuz.</p> <p>Batera zein bestera, aurreko aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da; aurretik aitorpen batzuk aurkeztu badira, azkenaren identifikazio zenbakia eman behar da.</p>		
<input type="checkbox"/> Aitorpen osagarria ..... <input type="text" value="01"/>	<input type="checkbox"/> Ordezko aitorpena ..... <input type="text" value="02"/>	
		Aurreko aitorpenaren identifikazio zenbakia ..... <b>184</b>

<b>6</b>	<b>ERAKUNDE MOTA</b>	
A) Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten errenta egokizetaren araubideko erakundeak:	Erakunde motaren gakoa... <input type="text"/>	Jarduera nagusiaren gakoa .... <input type="text"/>
B) Eragiketen bolumenaren zenbatekoa ..... <input type="text"/>		

<b>7</b>	<b>AITORPENAREN LABURPENA</b>	
Bazkide, jaraunslu, erkide edo partaideen guztirako kopurua ..... <input type="text"/>		

<b>8</b>	<b>ZIGILUA ETA SINADURA</b>

<b>9</b>	<b>SARRERA ERREGISTROKO ZIGILUA</b>

**LEGE OHARRA. DATUEN BABESA**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EU) Erregelamenduan (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Zergadunen Fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduak zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dira. Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta lege baimentzen diren kasuetan.

Erregelamendu horretan aitorzen diren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko, haien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probitzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba).

Informazio gehiago: <http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

**AVISO LEGAL. PROTECCIÓN DE DATOS**

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (Reglamento General de Protección de Datos), le informamos que los datos que nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Contribuyentes titularidad de la Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión, inspección y recaudación de los diferentes tributos. Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el citado Reglamento dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Álava).

Para más información: <http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus	<b>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (Establezimendu iraunkorrak)</b> Errenta eratzikipearen araubidean dauden erakundeak	<b>184</b>
	<b>ERAKUNDEAK LORTUTAKO ERRENTAK</b>	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

Erakundearen IFZ	Izena edo sozietatearen izena	Ekitaldia
------------------	-------------------------------	-----------

**ERAKUNDEAK LORTUTAKO ERRENTAK**

<b>A Kapital higigarriaren etekinak</b>			
	Sarrera osoak	Gastuak	Errenta egozkarria
PFEZ FA 34., 35. eta 36. art.			
PFEZ FA 37. art.			
<b>C Kapital higiezinaren etekinak</b>			
	Sarrera osoak	Gastuak / Hobaria	Errenta egozkarria
PFEZ FA 32.1 artikulua			
PFEZ FA 32.2 artikulua			
<b>D Jarduera ekonomikoaren etekinak</b>			
	Egindako jarduerak	1. jarduera	2. jarduera
Etekinak zehazteko metodoa			
Jarduera mota (gakoa)			
EJZren Taldea / Epigrafea			
Sarrera osoak			
Gastuak			
Aurretzeko etekin egozkarria			
Kobratzeko eta ordaintzeko irizpidea			
<b>R Jarduera ekonomikoari lotutako ondasunen ondare irabaziak eta galerak</b>			
Irabazi egozkarriak		Galera egozkarriak	
<b>F Ondare elementuak eskualdatzearen ondorio ez diren ondare irabaziak eta galerak</b>			
Irabazi egozkarriak		Galera egozkarriak	
<b>G Ondare elementuak eskualdatzearen ondoriozko ondare irabaziak eta galerak</b>			
Irabazi egozkarriak		Galera egozkarriak	
<b>H Errenta egozkarria Sozietateen gaineko Zergaren arabera zehazten duten kideak dituzten erakundeak</b>			
	Kontabilitate amaiza		
	Doikuntzak	Gehikuntzak	Gutxitzeak
	Errenta egozkarria		
<b>I/J Kenkariak</b>			
<b>I PFEZi buruko Foru Arauko kenkariak</b>		<b>J Szi buruko Foru Arauko kenkariak</b>	
	Kenkariaren oinarria / zenbatekoa		Kenkariaren oinarria / zenbatekoa
02. 16/2004 Foru Araua		01. Nazioarteko zergapetze bikoitzagatik	
04. Ekonomia jardueretan		02. Kenkariak, kuota mugarekikoak	
05. Nazioarteko zergapetze bikoitzagatik		03. 16/2004 Foru Arauko kenkaria	
06. Beste kenkari batzuk		04. Beste kenkari batzuk	
<b>K Entitateak jasandako atxikipean eta konturako sarrerak</b>			
			Atxikipean eta konturako sarreraren batura
01. Kapital higigarriaren etekinak			
02. Hiriko ondasun higiezinaren errentamendua (jarduera ekonomikoa izan zein ez)			
03. Jarduera ekonomikoaren etekinengatik			
04. Ondare irabaziengatik			
05. Beste kontzeptu batzuegatik			

RE 20/234

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	<b>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (Establezimendu iraunkorrak)</b> Errenta eratzikipenaren araubidean dauden erakundeak	<b>184</b>
	<b>BAZKIDEEN, JARAUNSLAEN, ERKIDEEN EDO PARTAIDEEN ZERRENDA. ERRENTA EGOZKARRIAK</b>	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

Erakundearen IFZ	Izena edo sozietatearen izena	Ekitaldia
------------------	-------------------------------	-----------

**BAZKIDEEN, JARAUNSLAEN, ERKIDEEN EDO PARTAIDEEN ZERRENDA. ERRENTA EGOZKARRIAK**

Erakundeko kidearen identifikazioa						
IFZ	Legezko ordezkariaren IFZ	Abizenak eta izena, edo sozietatearen izena				
Zerga egoitza	Probintziaren kodea	Herrialdearen gakoa	Partaidearen gakoa	Partaidetza (%)		
Erakundeko kide izandako urteko egunen kopurua	<input type="text"/>	X bat jarri abenduaren 31n erakundeko kidea izanez gero				<input type="checkbox"/>
<b>Partaidetzaren izaera</b>	Jarduera benetan gauzatzea	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>	Egozpena (%)		

**Etekinak, kenkariak eta atxikipenak**

<b>A Kapital higigarriaren etekinak</b>	
PFEZ FA 34., 35. eta 36. art.	Etekinen zenb.
PFEZ FA 37. art.	Etekinen zenb.
<b>C Kapital higiezinaren etekinak</b>	
PFEZ FA 32.1 artikulua	Etekinen zenb.
PFEZ FA 32.2 artikulua	Etekinen zenb.
<b>D Jarduera ekonomikoen etekinak</b>	
Jarduera ekonomikoen etekina	Etekinen zenb.
Kapital higigarriaren etekina (jarduera eraginkortasunez egiten ez denean betetzeko)	Etekinen zenb.
	Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenb.
<b>R Jarduera ekonomikoei lotutako ondasunen ondare irabaziak eta galerak</b>	
Irabazi egozkarriak	Galera egozkarriak
<b>F Ondare elementuak eskualdatzearen ondorio ez diren ondare irabaziak eta galerak</b>	
Glirabazi egozkarriak	Galera egozkarriak
<b>G Ondare elementuak eskualdatzearen ondoriozko ondare irabaziak eta galerak</b>	
Irabazi egozkarriak	Galera egozkarriak
<b>S Errenta egozkarria Sozietateen gaineko Zergaren arabera zehazten duten kideak dituzten erakundeak</b>	
	Errenta egozkarria
<b>I/J Kenkariak</b>	
PFEZ Foru Arauko kenkaria (I gakoa) / SZ Foru Arauko kenkaria (J gakoa) <input type="checkbox"/>	
01. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa	04. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa
02. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa	05. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa
03. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa	06. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa
<b>K Entitateak jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak</b>	
01. Kapital higigarriaren etekinak	
02. Hiriko ondasun higiezinaren errentamendua (jarduera ekonomikoa izan zein ez)	
03. Jarduera ekonomikoen etekinak (hiriko higiezinaren errentamendua izan ezik)	
04. Ondare irabaziak	
05. Beste kontzeptu batzuk	
Etekin, kenkari edo atxikipen egozkarrien gako edo azpigakoetatik zenbatekoa dutenak, guztira	

RE 20/235

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus</p>	<p><b>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga</b> (establezimendu iraunkorrak)</p> <p>Errenta eratzikipenaren araubidean dauden erakundeak</p>	<h1>184</h1>
<b>URTEKO INFORMAZIO AITORPENA • JARRAIBIDEAK</b>		

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

## GAI OROKORRAK

### 184 eredia aurkeztu behar dutenak

Hauek erabili behar dute 184 eredia:

- Zerga egoitza Araban duten errenta egozketaren araubideko erakundeak, jarduera ekonomikoren bat egiten badute edo urtean 3.000 eurotik gorako errentak lortu badituzte

Informazio betebeharra honako hauek bete behar dute:

- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren arabera errenta egozketaren araubideko erakundearen ordezkari denak, hau da, haren ordezkaritza duenak, baldin eta sinesgarriro frogatzen bada; eta ordezkariarik izendatu ez bada, halakotzat joko da ageriko kudeaketa eta zuzendaritza lanak egiten dituen edo, besterik ezean, erakunde edozein kide edo partaide.

### 184 eredian adierazi beharreko informazioa: Sartu behar diren errentak

184 eredian errenta egozketaren araubideko erakundeak lortutako errentak zehaztu behar dira, bai eta bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzari egotzi behar zaion errenta ere

#### Nola kalkulatu sartu beharreko errentak

- Egotzi beharreko errentak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauen arabera kalkulatu dira, eta honako berezitasun hauetan ez dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauak 25. artikuluko 4. idatz zatian, 30. artikuluko 3. idatz zatian eta 39. artikuluko 3. idatz zatian ezarritzen diren integrazio ehunekoak:
  - Erakunde kide guztiak sozietatearen gaineko zergagatik edo Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergagatik zergadunak direnean eta establezimendu iraunkorra dagoenean, ondare sozietateak ez badira, errenta egozkarria sozietatearen gaineko zergan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.
  - Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei (establezimendu iraunkorrik ez) esleitu beharreko errenta Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauak IV. kapituluaren ezarritzen duenaren arabera zehaztu behar da.
  - Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateetan, sozietateen gaineko zergaren zergadunaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren (establezimendu iraunkorrenekin zein halakorik gabe) zergadunak diren kideetatik pertsona fisiko ez direnei jarduera ekonomiko bati lotuta ez dauden ondare elementuak eskualdatuta lortutako irabazien ondorioz esleitu beharreko errenta kalkulatzeko ez da aplikatuko PFEZi buruzko Foru Arauaren lehen xedapen iragankorrean xedatzen dena.
- PFEZen edo sozietateen gaineko zergaren zergadunak den bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzak atzerrian eratu den eta errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate bateko kidea bada, horiei guztiei esleitu beharreko errenta zatia aurreko lehenengo erregelaren adierazitakoaren arabera zehaztuko da.

- Baldin eta errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate batek errentak lortzen baditu atzerrian, hain zuzen ere Espainiarekin zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenik (informazioa trukatzeko klausula duena) sinatuta ez duen herrialde batean, ez dira konputatuko herrialde horretan bertan iturri beretik lortutako errenta positiboak gainditzen dituzten errenta negatiboak.

Gaindikina hurrengo lau urteetan zenbatuko da arau honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

- Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei esleitutako errenten izaera sortu diren jardueraren edo iturriaren arabera izango da.

Errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate batek jarduera ekonomiko bat egiten badu, jardueraren etekinak etekin ekonomiko izango dira entitateko bazkide, erkide, partaide edo jaraunsleentzat, baldin eta jarduerari lotutako ekoizbideen eta giza baliabideen norbere konturako antolamenduan ohikotasunez eta zuzenean parte hartzen badute.

Hala ere, eratzikitako etekinak kapitalaren etekinak izango dira aurrean aipatutako jardueretan parte hartzen ez duten bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideentzat, baldin eta erakunde partaidetza kapitala ekartzea baizik izan ez bada Hala gertatuz gero, egotz daitekeen etekina gehienez ere ekarritako kapitalaren %15 izango da.

- Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei ordaintzen zaizkien errentei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauetako atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar zaizkie, bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzari aplikatu beharreko zerga araubidea gorabehera. Atxikipena edo konturako sarrera kide bakoitzaren gaineko karga pertsonaletik kenduko da, hain zuzen ere errentak eratzikitzen zaizkion proportzio berean.

- Errentak kasu bakoitzean aplikatu beharreko arauen edo itunen arabera eratzikiko zaizkie bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideei. Zerga Administrazioak horien berri ez badu modu sinesgarrian, errentak hainbanatu egingo dira.

Horri dagokionez, urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuak, zergadunen eroldari eta horren inguruko betebeharrei buruzkoak, xedatzen du errentak eratzekitzeko araubideko erakundeek, besteak beste, euren bazkide, erkide edo partaideei buruzko aldatetako jakinarazi beharko dituztela, behin betiko identifikazio fiskaleko zenbaki bat lortu badute ere, jabetza horizontaleko araubidean eraturako jabeen erkidegoak izan ezean, Enpresaburuen, Profesionalen eta atxikitzaileen erroldan sartuta egon arren. Lehen indarrean zeudenak aldatzen dituzten eskrituren edo dokumentuen kopia aurkeztu beharko dute, dagokien erregistroan inskribatu edo inskripzioa beharrezkoa ez balitz hura eman eta hilabeteko epean, sartutako aldatetako aldatetaren erolda aitortpen bat aurkezteko eskatzen dutenean.

### Aitortu beharreko errenten aldia. Zer aldiri buruzkoak izan behar dute aitortu beharreko errentak?

184 eredian egutegiko urte bakoitzean erakundeak lortutako errentak eta erakunde kide bakoitzari egotzi beharrekoak aitortu behar dira



**Aurkezteko epea, lekua eta ordaintzeko era**

184 ereduak urte bakoitzeko otsailean aurkeztu beharko da, aurre-aurreko egutegi urtean erakundeak eskuratutako errentei eta kide bakoitzari eratzeki beharreko errentei dagokienez.

184 ereduak telematikoki aurkeztea lehenetsiko da, telematikoki aurkeztera derrigortuta ez daudenentzat. Inprimakian aurkezteko modalitatea Arabako Foru Ogasunaren bulegoetan egingo da.

**Konposizioa**

184 ereduak atal hauek ditu: "Laburpen orria", "Erakundeak lortutako errentak aitortzeko orriak" eta "Bazkide, jaraunsle, erkide eta partaideen zerrendak jartzeko orriak"

**NOLA BETE LABURPEN ORRIA****Aitortzailea. Identifikazioa**

Errenta egoketaren araubideko erakundearen identifikazio etiketa, Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzak ematen duena, berariaz ezarritako tokian itsatsi behar da.

**Ekitaldia**

Aitorpenaren ekitaldiaren lau zifrak jaso behar dira.

**Aitorpenaren identifikazio zenbakia**

Aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da. Zenbaki sekuentziala izan behar da, eta lehenengo hiru digituak 184 izan behar dira (ereduaren kodea).

**Ordezkarria**

Errenta egoketaren araubide erakundearen ordezkariaren datuak jarri behar dira.

**Harremanetarako pertsona**

Harremanetarako pertsonaren datuak jarri behar dira.

**Aitorpen osagarria edo ordezkioa**

*Aitorpen osagarria.* Aitorpenaren xedea ekitaldi bereko beste aitorpen batean, dagoeneko aurkeztuta dagoen batean, sartu behar eta ahaztu diren eragiketa batzuk sartzea denean, lauki honetan X jarriko da.

*Ordezko aitorpena.* Aurkezpenaren xedea ekitaldi bereko beste aitorpen bat, okerreko datuak eduki dituena, osorik deuseztatzea eta ordeztzea bada, lauki honetan X ipini behar da.

Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bat bakarrik deuseztatu dezake.

*Aurreko aitorpenaren identifikazio zk.* "Aitorpen osagarria" edo "Ordezko aitorpena" laukietan "X" bat jarri bada, ordeztutako edo osatutako aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.

**Entitate mota**

**A.** Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten errenta egoketaren araubideko erakundeak.

*Erakunde motaren gakoa.* Erakunde motari dagokion zenbakizko gakoa idatzi behar da; hona gakoaren zerrenda:

1. Sozietate zibila.
2. Ondasun erkidegoa.
3. Jaso gabeko jarauntsia.
4. Jabeen erkidegoa.
5. Bestelakoak.

*Jarduera nagusiaren gakoa.* Erakundeak egiten duen jarduera nagusiari dagokion zenbakizko gakoa jarri behar da:

1. Enpresa jarduera.
2. Lanbide jarduera.
3. Ondasun higiezinaren ukaitza eta administrazioa.
4. Finantza balore edo aktiboaren ukaitza eta administrazioa.
5. Bestelakoak.

**B.** Eragiketen bolumenaren zenbatekoa.

Entitateak egiten dituen jarduera ekonomikoetako eragiketen bolumena jarduera ondasunak emanez eta zerbitzuak eginez

lortutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa da, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetzaren errekarua kenduta.

**Aitorpenaren jasotako datuen laburpena**

*Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen guztirako kopurua.* Aitorpenaren sartutako bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak kontuan hartuta, egotzi beharreko etekinen, kenkariaren edo atxikipenen gako edo azpigakoetatik zenbatekoren bat dutenen guztirako kopurua adierazi behar da (ikus, beherago, bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen zerrendaren orria betetzeko jarraibideak).

**Data, ziguila eta aurkezlearen sinadura**

Aitorpenaren data eta sinadurarentzat utzitako hutsunaren data eta errentak eratzikitzeko araubideko entitatearen ordezkariaren sinadura jasoko dira.

**ERAKUNDEAREN ERRENTAK AITORTZEKO ORRIAK ETA BAZKIDE, JARAUNSLA, ERKIDE ETA PARTAIDEEN ZERRENDAK JARTZEKO ORRIAK BETETZEKO ARAU OROKORRAK****BARRUKO ORRIEN IDENTIFIKAZIO DATUAK**

1. Aitorpeneko orrialde guztietan erakunde aitortzailearen identifikazio datu hauek agertu behar dira:
  - *IFZ:* erakunde aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia.
  - *Izena edo sozietatearen izena:* erakundearen izen osoa, anagramarik gabe. Ezin izango da, inolaz ere, merkataritza izenik jarri.
  - *Ekitaldia:* aitorpenaren ekitaldia idatziko da.
2. Ereduan inprimatutako eremuak nahiko ez badira eskatutako datu guztiak jartzeko, formatu bereko orri gehiago erabili ahal izango dira.
3. Kopuru negatiboen aurrean zeinua jarri behar da, baina inoiz ere ez parentesi artean.

**ERAKUNDEAK LORTUTAKO ERRENTAK**

**OHARRA:** Errentak pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren arauen arabera zehaztuko dira, eta ez dira aplikatuko PFEZri buruzko azaroaren 17ko 33/2013 Foru Arauaren 25. artikuluko 4. idatz zatian, 30. artikuluko 3. idatz zatian eta 39. artikuluko 3. idatz zatian ezartzen diren integrazio ehunekoak, aipatzen diren berezitasunekin (foru arau horren 55.1, 1. artikulua)

**Betetzea: Erakundeak lortutako errentak aitortzeko orriak****A) Kapital higigarriaren etekinak**

**PFEZren 33/2013 FAREN 34., 35. eta 36. artikuluetan aurreikusitakoak**

*Sarrera osoak.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 34., 35. eta 36. artikuluetan aurreikusitako kapital higigarriaren etekin osoen guztizko zenbatekoa idatziko da.

*Errenta egozkarria.* Atal honetan aipatutako kapital higigarriaren etekinen kontzeptuko errenta egozkarriaren guztizko zenbatekoa idatziko da, eta bat etorriko da Sarrera osoen atalean jasotako zenbatekoarekin.

**PFEZri buruzko 33/2013 FAREN 37. artikuluan aurreikusitakoak**

*Sarrera osoak.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 37. artikuluan aurreikusitako kapital higigarriaren etekin osoen guztizko zenbatekoa idatziko da. *Gastuak.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 37. artikuluan aurreikusitako kapital higigarriaren etekinen gastuen guztizko zenbatekoa idatziko da, zerga ondorioetarako ken daitezkeen gastuena.

*Errenta egozkarria.* Kapital higigarriaren etekin gisa egotz daitekeen errentaren guztizko zenbatekoa adierazi behar da.

Errenta egozkarria = Sarrera osoak – Gastuak

#### C) Kapital higiezinaren etekinak

**PFEZri buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 1. idatz zatian aurreikusitakoak**

*Sarrera osoak.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 1. idatz zatian aurreikusitako kapital higiezinaren etekin osoen guztizko zenbatekoa idatziko da.

*Gastuak / Hobaria.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 1. idatz zatian aurreikusitako kapital higiezinaren etekin gastuen guztizko zenbatekoa idatziko da, zerga ondorioetarako ken daitezkeen gastuena, sarrera osoei aplikatu behar zaion hobaria barne.

*Errenta egozkarria.* Kapital higiezinaren etekin gisa egotz daitekeen errentaren guztizko zenbatekoa adierazi behar da.

Errenta egozkarria = Sarrera osoak – Gastuak / Hobaria

**PFEZri buruzko 33/2013 FAre 32. artikuluko 2. idatz zatian aurreikusitakoak**

*Sarrera osoak.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 2. idatz zatian aurreikusitako kapital higiezinaren etekin osoen guztizko zenbatekoa idatziko da.

*Gastuak / Hobaria.* Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 2. idatz zatian aurreikusitako kapital higiezinaren etekin gastuen guztizko zenbatekoa idatziko da, zerga ondorioetarako ken daitezkeen gastuena, sarrera osoei aplikatu behar zaion hobaria barne.

*Errenta egozkarria.* Kapital higiezinaren etekin gisa egotz daitekeen errentaren guztizko zenbatekoa adierazi behar da.

Errenta egozkarria = Sarrera osoak – Gastuak / Hobaria

#### D) Jarduera ekonomikoen etekinak

Atal honetan errenta egozketaren araubideko erakundeak egindako jarduera ekonomikoen etekinak zehaztu behar dira.

*Etekinak zehazteko metodoa.* Atal honetan errenta egozketaren araubideko sozietatearen jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko metodoa zehaztu behar da zenbakizko bi gako hauek baten bitartez:

Etekinak zehazteko metodoa	Gakoa
Zuzeneko zenbatespena. Modalitate arrunta.	1
Zuzeneko zenbatespena. Modalitate erraztua.	2

*Jarduera mota. Gakoa.* Aitorpen inprimakiko zutabeetan agertuko diren jardueren mota edo izaera adierazi behar da ondoko bost gakoetatik kasu bakoitzean behar dena jarrita:

Jardueren mota edo izaera	Gakoa
Merkataritzako enpresa-jarduerak	1
Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak	2
Enpresa-jarduerak, merkataritzakoak ez bestelakoak	3
Artearen edo kirolaren arloetako profesional-jarduerak	4
Gainerako profesional-jarduerak	5

*EJZren Taldea / Epigrafeak.* Erakundeak egiten duen jarduera Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dagokionez zein talde edo epigrafetan sailkatuta dagoen adieraziko da.

*Sarrera osoak.* Errenta egozketaren araubideko erakundeak kasuan kasuko jarduera ekonomikoaren bidez lortutako sarrera osoen zenbatekoa jarri behar da. Atal honetan bazkide, jaraunse, erkide edo partaide bakoitzak jarduerarako aldi baterako ezintasunaren zioz hartutako prestazioak eta kopuruak sartu behar dira. *Gastuak.* Jarduera ekonomikoen etekin etatik ken daitezkeen gastuen guztizko guztizko zenbatekoa jarri behar da, azalpen honetatik ateratakoa:

1. Langileen gastuak
2. Ustiapeneko kontsumoak
3. Zerga ondorioetarako ken daitezkeen zergak
4. Errentamenduak eta kanonak
5. Konponketak eta zainketa
6. Profesional independenteen zerbitzuak
7. Hornidurak
8. Finantza gastuak
9. Amortizazioak
10. Hornidurak
11. Zerga ondorioetarako ken daitezkeen bestelako gastuak

Etekinak zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuaren bidez zehazten zaizkion jarduerari dagokienez, eta etekin garbia zehazteko, PFEZri buruzko azaroaren 17ko 33/2013 Foru Arauaren 28. artikuluko 1. idatz zatiko a) eta b) letretan eta 2. idatz zatian xedatutakoa hartuko da kontuan.

*Aurretiazko etekin egozkarria.* Sarrera osoen eta gastu kengarrien arteko kendura jarri behar da.

Aurretiazko etekin egozkarria = Sarrera osoak – Gastuak

*Kobratzeko eta ordaintzeko irizpidea.* Baldin eta entitateak ekitaldian egindako jarduera ekonomikoen errenten aldi egozketarako Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 1eko 37/2013 Foru Arauaren 54.4 artikuluan ezarritako irizpidea aplikatu badu, edo, bestela, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Araudiak, abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 49.2 artikuluan kobrantzetarako eta ordaintzetarako ezarritako irizpidea, "X" idatzi behar da.

#### R) Jarduera ekonomikoei lotutako ondasunen ondare irabaziak eta galerak

Atal honetan jarduera ekonomikoen multzoari atxikitako ondare elementuetatik lortutako ondare irabaziak eta galerak aitortu behar dira.

Zenbatekoa Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorri kalkulatu da.

*Irabazi edo galera egozkarriak.* Ekitaldian egotz daitezkeen ondare irabazi eta galeren zenbatekoa jarri behar da.

#### F) Ondare elementuak eskualdatzearen ondorio ez diren ondare irabaziak eta galerak

Atal honetan ekitaldian benetan egotzitako ondare elementuen eskualdatzeen bidez ez beste eragiketa batzuen bidez lortutako irabazi eta galera garbiak aitortu behar dira.

*Irabazi edo galera egozkarriak.* Ekitaldian egotz daitezkeen ondare irabazi eta galeren zenbatekoa jarri behar da.

#### G) Ondare-elementuen eskualdaketen ondorioz ondarean izandako irabaziak eta galerak

Atal honetan, ondare elementuen eskualdaketatik ondorioztatutako galera eta irabazien zenbateko osoa adierazi behar da. Ondare elementuen eskualdatzeek sortuta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 47. artikuluan xedatutakoaren arabera ekitaldian benetan egotzen diren irabaziak eta galerak jarri behar dira.

*Irabazi edo galera egozkarriak.* Ekitaldian egotz daitezkeen ondare irabaziaren edo galeraren zatia jarri behar da.

#### H) Errenta egozkarria Sozietateen gaineko Zergaren arabera zehazten duten kideak dituzten erakundeak

Errenta egozketaren araubidean dagoen erakundeko kide guztiak Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun badira, partaide horiei egotzi beharreko errentak Sozietateen gaineko Zergaren arauari jarraituz zehaztuko dira.

*Kontabilitateko emaitza.* Ekitaldiaren emaitza jarri behar da, erakundearen urteko kontuetan ageri dena. Urteko kontuak merkataritzako eta kontabilitateko arau aplikagarrien arabera egin behar dira.

*Doikuntzak: Gehikuntzak / Murrizketak.* Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauan eta zergen arloko gainerako arau aplikagarrietan ezarritakoaren arabera kontabilitateko emaitzari

gehitu edo kendu beharreko zenbatekoak adierazi behar dira, erakundeak ekitaldian sortutako zerga errenta zehazteko.  
*Errenta egozkaria.* Ekitaldian haren kideei egotzi beharreko zenbatekoa jarri behar da.

**Errenta egozkaria = Kontabilitateko emaitza + Gehikuntzak – Murrizketak**

**I) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauko kenkariak**

Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauan aurreikusitako kontzepturen baten zioz kenkariaren oinarri den zenbatekoa jarri behar da.

02 16/2004 Foru Arauko kenkariak

*Kenkariaren oinarria.* Egindako dohaintzaren balioari dagokien zenbatekoa jarri behar da, Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauaren 91. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu.

04 Jarduera ekonomikoaren kenkariak

